

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI). 2020KO ABUZTUA

Euskal AEko industria-jarduera % 14,5 jaitsi da 2020ko abuztuan


Aurreko hilaren aldean, 2020ko uztaila, Industria produkzioaren indizea % 0,8 jaitsi da

Eustatek landutako datuen arabera, 2020ko abuztuan % 14,5 murriztu da Euskal AEko industria-produkzioa lan-egutegiko termino homogeneotan, 2019ko hil beraren aldean.

Abuztua aurreko hilarekin konparatuz (2020ko uztaila), Euskal AEko industria-produkzioa % 0,8 jaitsi da, behin urtaroen eragina zuzenduta.

2020ko lehenengo zortzi hilabeteetako balantzea industria-jardueraren % 16,0ko uzkurdua metatuarekin itxi da.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020ko abuztuko indizearen bilakaera, 2019ko abuztuarekin alderatuta, negatiboa da industria-sektore handi guztietan. *Energiak* % 21,8 egin du behera, eta, sektore horretako jarduera garrantzitsuenen artean, energia elektrikoaren hornidura eta petrolioaren fintzea daude.

Bitarteko ondasunak, bestalde, % 12,1 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunak* % 6,4. Lehenengoen artean daude metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa edo kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa; bigarrenen artean, berriz, ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren egitea edo aireontziak edo itsasontziak egitea.

Azkenik, *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 7,4ko urte arteko jaitsiera izan dute, nahiz eta osagaien portaera desberdina izan den. Hala, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 23,7 egin dute behera, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 4,3. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Hil arteko aldakuntza (2020ko abuztua 2020ko uztailaren aldean) neurrizkoagoa eta zeinu desberdinekoa da industria-sektore handietan, urtaro-eraginak zuzendu ondoren. *Energia* % 0,8 hazi da, eta *Bitarteko ondasunak* % 0,1 igo dira. Aitzitik, *Ekipo-ondasunek* % 4,4 egin dute behera, eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 1,1 jaitsi dira, bi portaera ezberdinen konbinazio gisa: *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 1,4 egin dute behera, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrak*, berriz, berean mantendu dira (% 0,0).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Abuztua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Abu2020 / Abu2019	A(Abu2020) / A(Abu2019)(*)	Abu2020 / Uzt2020	Uzt2020 / Eka2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-14,5	-16,0	-0,8	3,2
Araba/Álava	-13,3	-17,1	-3,9	1,9
Bizkaia	-21,4	-17,3	-1,2	4,9
Gipuzkoa	-4,9	-14,0	1,7	2,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-7,4	-7,5	-1,1	2,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-23,7	-17,1	0,0	-4,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-4,3	-5,3	-1,4	3,8
Ekipo-ondasunak	-6,4	-16,0	-4,4	3,9
Bitarteko ondasunak	-12,1	-19,8	0,1	3,1
Energia	-21,8	-7,9	0,8	3,8

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila xehatuago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, urte arteko aldakuntzetan 2020ko abuztuan portaera positiboa izan duen sektore bakarra *Makineria eta ekipoa* izan da, produkzioan % 7,2ko hazkundearekin. Hauek dira, pisu handieneko sektoreetan, jaitsierarik handienak eduki dituztenak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, % 20,6 behera egin duena, *Metalurgia eta produktu metalikoak*, % 15,7 jaitsi dena, eta *Zura, papera eta arte grafikoak*, % 14,0ko jaitsiera izan duena, behin zuzenduta egutegi-efektuak.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-15,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrana	-20,6
09 - Kautxua eta plastikoak	-9,9
13 - Makineria eta tresneria	7,2
14 - Garraio-materiala	-12,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-5,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,7
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-14,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, Industria produkzioaren indizearen abuztuko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan. Halatan, Bizkaian % 21,4 jaitsi da, Araban % 13,3 eta, azkenik, Gipuzkoan % 4,9.

Hilabete arteko terminoetan, 2020ko abuztua eta 2020ko uztaila alderatuta, eta urtaro-ondorioak kendu ondoren, Gipuzkoan produkzioa % 1,7 hazi da, baina Bizkaian eta Araban, aldiz, % 1,2 eta % 3,9 jaitsi da, hurrenez hurren.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegi-eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabili diren ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis metodologia-oharrean emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik, zirkunstantziak gorabehera. Haiei esker, abuztuko indizea lagingaren % **95,14ko** estaldurarekin kalkulatu da –lagingaren informazioa irailean zehar jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62